

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA

Giza Eskubideen, Memoriaren eta
Bizikidetzaren Sailburuordetza
*Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS

Viceconsejería de Derechos Humanos,
Memoria y Convivencia
*Dirección de Derechos Humanos y
Atención a Víctimas*

**I. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak/elkarteak (NAN/AIZ/IFK:.....),
eta «René Cassin» saria arautzen duen ekainaren 2ko 88/2026 Dekretuaren 4.5.d)
artikuluari eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko,

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DU, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren
2025eko otsailaren 5eko Aginduaren bidez onartutako eta 2026ko otsailaren 10eko
Aginduaren bidez eguneratutako 2028ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan
aurreikusitako «René Cassin» sarirako aurkeztutako hautagaitzari dagokionez,
BERARIAZ ONARTZEN DUELA sari horretan parte hartzea, bai eta dagokion dekretu
arautzailean ezarritako baldintza guztiak ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko
38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren
21eko 20/2023 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, eta, zehazki, honako hau:

- a) Ez dagoela laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai
irmo batez kondenatuta, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-
eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta
legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- b) Ez du eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, ez dago ezein prozeduratan
kaudimengabe deklaratura, ez dago konkurtsoan deklaratura, salbu eta horretan
eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dago esku-hartze judizialaren pean eta
ez dago desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera,
konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.
- c) Ez duela administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik
eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona
juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela honako lege hauek jasotako
bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko
Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu
Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko
Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren
ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege
horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako
baldintzetan.
- e) Egunean ditu indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte
Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den moduan.

- f) Ez dut egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako ezein herrialde edo lurraldetan.
- g) Egunean ditut dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritz.
- h) Ez dut betetzen Estatuko araudiak 50 langiletik gorako enpresentzat ezarritako betebeharra, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horrelako egoeretan jarduteko neurriak izateari buruzkoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, aplikatzekoa denean.
- i) Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, zehatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.
- j) Bete dut desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota, eta ez dut egiaztatu hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri ditudala.
- k) Ez dut jaso dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenik, ebazpen irmo baten bidez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

Halaber, adierazten du aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta hautagai gisa betetzen ditudala indarreko araudian onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak.

..... (lekua eta data)

Sinadura: